

# PROWINE ASIA HONG KONG 2025

## BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2025eko maiatzaren 14-16
- **Tokia:** Hong Kong Convention and Exhibition Centre
- **Maiztasuna:** urtekoa (ProWine Singapurrekin txandakaturuz)
- **Norentzat:** Mahastizaintza eta Ardogintza industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2025eko urtarrilaren 30
- **Azokaren webgunea:** [www.prowine-hongkong.com](http://www.prowine-hongkong.com)

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **PROWINE HONG KONG 2025** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZI Fundazioaren bitartez. Azoka Hong Kong-en ospatuko da 2025eko maiatzaren 14tik 16ra arte.

# AZOKAREN IZAERA

ProWine Hong Kong-ek ate bat eskaintzen du mundu osoko ardo-ekoizleek beren negozioa Asian zabal dezaten, kalitate handiko plataforma bat eskaintzeaz gain, tokiko erosleek maila globaleko ardorik onenak lor ditzaten.

## Ordezkatutako sektoreak:

- **Ardoak:** beltzak, zuriak, gorriak, apardunak eta organikoak, besteak beste.
- **Likoreak eta destilatuak:** whiskia, vodka, ginebra, rona, tekila, etab.
- **Ardo eta likoreentzako osagarriak:** sakakortxoak, dekantagailuak, kopak, biltegitratze-sistemak, etab.
- **Erlazionatutako zerbitzuak:** enbalatzeko soluzioak, logistika, aholkularitza enologikoa, besteak beste.

## Bertaratuen profila:

- Ardoen eta likoreen inportatzaileak, **banatzaileak eta handizkariak**.
- Edari alkoholodunetan espezializatutako **txikizkariak**.
- **Ostalaritzako profesionalak:** sommelierak, bartenderak, elikagaien eta edarien kudeatzaileak, sukaldariak.
- Airelineen, gurutzaldien, hotelen, jatetxeen eta ostalaritzako beste establezimendu batzuen **erosleak**.
- **Merkataritza-elkarteak** eta industriako beste eragile giltzarri batzuk.

## Jarduera nabarmenak:

- **Mintegiak eta hitzaldiak:** merkatuaren joerak, dastatze-teknikak eta beste gai garrantzitsu batzuk.
- Nazioarteko adituek zuzendutako **dastatzeak eta masterclasseak**.
- **Networking aukerak** sektoreko profesionalekin eta enpresekin maila globalean.

# AZOKAREN IZAERA

## PROWINE HONG KONG DATUAK

**Erakusteka  
tokia:**

Hong Kong  
Convention  
and  
Exhibition  
Centre

**Ordutegia:**

maitzak 14/15  
10:30 - 18:30  
maitzak 16  
10:30 - 17:00

**Erakusleak  
2023an:**

140  
12 herrialde  
eta  
eskualdekoak

**Bisitariak  
2023an:**

11.733  
profesional

## **EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-A**

Eusko Jaurlaritzak **PROWINE HONG KONG 2025** azokan espazio bat izango du Euskadiko mahastizaintza eta ardogintza industriako enpresentzat, stand partekatuan parte hartu nahi dutenentzat.

Euskadiren ordezkariak gaitasun mugatua du. Lekua baino enpresa interesdun gehiago egonez gero, aukeraketa bat egingo da, **izena emateko hurrenkeraren arabera.**

# PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleek baino ez dute parte hartuko ekitaldi honetan.

Enpresa erakusketariak azokara joango dela baieztatzen duenean, izena emate formularioa eta ordainketa-egiaztagiria bidaliz, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko azoka egiten bada eta Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartuko duela berresten bada. Azoka egiten ez bada, HAZIK dagokion zenbatekoa itzuliko du.

## AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantzijasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.

## AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadin ekoizitakoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.

- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.
- Azoka amaitzean, enpresak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

## AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

# PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

## PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzaren stand-ean, Euskadiko elikagaien industrian kalitatezko ardoak (Jiko ardoak), Jiko txakolinak edota beste edari alkoholodun batzuk ekoizten diharduten enpresek izango dute lekua.



- **Stand PARTEKATUA eredia:**  
(enpresen arteko bereizgailurik gabeko eremu komuna) eta biltegi partekatua.

## PARTE HARTZEKO KOSTUA

ProWine Hong Kong 2025 azokan parte hartzea hurrengo kostua izango du :

- **Stand PARTEKATUA:**

1.950 € + 21% IVA = 2.359,50 €

# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## IZENA EMATEKO EPEA: 2025EKO URTARRILAREN 30

ProWine Hong Kong 2025ean Eusko Jaurlaritzarekin izena emateko, enpresak jarraian zehazten diren dokumentuak bete beharko ditu.

Plaza kopurua mugatua denez, izena emateko formularioa betetzea eta eskatutako dokumentazioa ahalik eta lasterren [bsevillano@hazi.eus](mailto:bsevillano@hazi.eus) helbidera bidaltzea gomendatzen da.

### IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

[IZENA EMATEAK](#)

### KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Kontu zenbakia:

**ES49 3035-0179-61-1791069900**

Laboral Kutxa HAZIren izenean.

BIC de Laboral Kutxa: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +  
PROWINE HONG KONG 2025".

Enpresak **ZERGA-BETEBEHARRAK** eta **GIZARTE  
SEGURANTZAREKIKOAK** egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

- Izena emateko unean, enpresak kuotaren % 100 + % 21eko BEZa ordainduko du. HAZIren Finantza Sailak faktura bakarra bidaliko dizue kuotaren zenbateko osoarekin, azokan parte hartuko duzuela baieztatu ondoren.

Enpresa parte hartzaileen **hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.**



# EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

## GARRANTZITSUA

Izen-ematea formalki egintzat jotzeko IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE eta ORDAINAGIRIA IGORRI beharko da. Ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emateko datatzat.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaidetik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

# ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

## 1 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak salgaiaren bidalketa taldekatua antolatuko du, garraiolariak adierazitako puntu komunetik salgaia stand-ean entregatu arte.

Salgaia bidaltzearen kostua garraiolariak fakturatuko du, eta enpresa erakusketariaren kontura izango da oso-osorik.

Dagokionean, enpresa garraiolari esleipendunaren datuak emango zaizkie.

Eusko Jaurlaritzak ez du bere gain hartuko taldekako bidalketatik kanpo bidalitako salgaien harreraren edo segurtasunaren ardura.

Enpresek merkantzia jasotzen duten bitartean bertan egon beharko dute, adierazten zaien orduan, bai eta beren standak jaialdia inauguratu baino behar bezain lehenago apaintzeko ere. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera joaten ez diren enpresak zigortu ahal izango dira.

## 2 Kopa eta listu ontzien zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak kopak (garbiketa barne) eta listu-ontziak kontratatzea koordinatuko du. Zerbitzu hori osorik fakturatuko zaio zerbitzua eskatu duen enpresa erakusleari.



# ESKAINITAKO ZERBITZUAK

3

## Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko tramite guztiak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko; bertan, ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).

4

## Standa mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate eta ur-zerbitzuez, besteak beste, bai eta, oro har, standaren mantentze egokiaz ere. Hala ere, enpresa bakoitza izango da bere standa garbitasun-baldintza egokietan izatearen erantzulea.